

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abenduaren 28a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera: 'Bera, inguruari begirada' gidaliburua karrikaratu dute herriko bortz gaztek
Jaione Olazabal: «Helduei gehiago kostatzen zaie kantu txapelketan parte hartzea»

• MIKEL SAIZ



Juan Farok eta Ana Buenok 30 bat urte egin dituzte Nafarroan txotxongilo antzerkia egiten. 1978 urte aldera Retablo de Figurillas taldea sortu zuten. Gero, Juanjo eta Pili seme-alabak batu zitzaizkien. Orain, txotxongiloen harietatik tiraka aktoreak zeudela urteetan erakutsi eta gero, Juanek eta Anak atsedean hartuko dute. Egunotan, Iruñeko Erraldioen Txokoan Retablo de Figurillas taldearen txotxongilo anitz dago erakusgai, hamaika urtetan egin dituzten 22 antzezlanetako panpinen erakusgarri zabala.

Hamaika urtez hariak mugitzen

• MIKEL SAIZ



Bera •

Inguratzen gaituenari begira

'Bera, inguruari begirada' gidaliburua karrikaratu dute herriko bertz gaztek

Illekueta auzotik abiatuta, Zia, Dornaku eta Suspela auzoak gurutzatzen dituen zidorra prestatu eta horretarako gidaliburua apailatu dute Berako bertz gaztek. Doan banatuko dute, bertako biztanleek zein kanpotik datozenek ingurua hobeki ezagutzeko.

KASIK URTEBETE LANEAN eman ondotik argitaratu dute *Bera, inguruari begirada* gidaliburua Zia taldeko kideek. Illekuetako errotako ataritik abiatzen den ibilbidea auzo hori, Zia, Dornaku eta Suspela auzoak zeharkatzen ditu, eta berriz ere Illekuetan bukatu. 5,8 km luze den ibilbidea da, xamurra arunt. Galderen bidez, irakurleari paper aktiboa joka dezala eskatzen dio, eta funtsean, ingurua behatzeko gonbita da gidaliburua. Metodologia hori da, hain zuzen, gidaren alderdirik berritzailea. Jakingarriak zabaltzeko, gidaliburuaren hondarrean glosategi bat dago, informazioa zabaltzeko.

Paisaia, baserriko bizimodua, zuhaitzak, landaketak, mendiak, etxebizitzak, erreka eta, oro har, ingurua osatzen duen guztia aztertzen da. «Inguruaz ez dugu bakarrik natura ulertzen ahal, ingurua osatzen duen guztia baizik», argitu du Gorane Artiedak, taldeko kide eta ekimenaren bultzatzaileetako batek. Izan ere, Deustuko Unibertsitateko masterrean egindako lan baten ondorio izan da liburuxka. Baina Artiedaren ikuspegiari bertzelako diziplina batzuetatik ere ekarpenak egin



Ibilbidean Balkezenea eta antzeko beste zenbait baserri ikus daitezke, Dornaku auzoan. • ASIER GOGORTZA

dizkiote gainerako kideek; kazetari bat, bi biologo eta geografotako bat aritu dira Artieda historialariarekin.

Ibilbideko lehen zatian kiwi landaketa bat aztertzen da. Fruta horren etorreraz, eta bertako zein kanpotik ekarritako landareez galde egiten du gidak. Aitzinago, paisaiaren azterketa egiten da, soroak, herria eta Aiako harria ikus daitezkeen tarte batetik. Lamixenetik igarotakoan —Zia erreka-ko putzu bat—, lamien kondairak biltzen ditu gidak, mitologiari leku eginez, eta Zia auzora heldutakoan, berriz, eraikin berriak, herriko arau subsidiarioetan duten eragina eta ezaugarriak aztertzen dira.

Dornaku auzora heldutakoan, bide bazterrean lur eremua mugatzeko erabiltzen diren harriak aztertzen dira, eta horrekin bat, mugarako bertzelako osagaiak: arto eta arbi landaketak; baserriaren egitura eta berau eraikitzeako materialak; belar eta iratze metak eta belarra pilotzeko bertzelako ereduak jorrotzen dira, bertzeak bertze. Suspela auzotik Larrun mendia eta basurdeak aztertzen dira, ibilbidearen amaierara heltzearekin bat. Ebaluazio bat egiten da bertan, eta irakurleek buzoi bat dute erantzunak bertan sartzeko.

Gidaliburua Europako Bata-suneko, Nafarroako Gobernu-ko eta Berako Udaleko diru laguntzekin argitaratu dute.

→ Jon Abril

Viana

www.gabonak.com

Iragan astelehenean Euskal Herriko etxe guzietara aile-gatu zen Olentzero. Mendi, bailara eta herrietan barrena ibili zen. Baina, horrez gain, garai modernoetara egokitu-tuz, Internet sarean ere ikusi dugu.

Vianako Erentzun ikastol-lak www.gabonak.com web-gunea paratu zuen Internet-en 1998. urtean, eta gerostik 20.000 pertsonak bisitatu dute webgunea. Orrialdearen arrakasta azken egun hauetan sumatzen ahal da bereziki; izan ere, egunero 400 zibernautaren bisita jasotzen du. Erentzun ikastolako Fultxo Crespo, Mikel Fernandez eta Beatriz Amaia irakasleak izan ziren ideia berritzaile horren egileak, eta, haien erranetan, Euskal Herrian ez ezik, egun Olentzero Estatu Batuetan, Frantzia, Mexikon eta Argentinan ere edeki ezagutzen dute. «Ez genuen uste honenbertzeko arrakasta izanen zuenik orrialdeak, baina, egiaren errateko, egunetik egunera bisita gehiago jasotzen ditugu», adierazi dute.

www.gabonak.com gunean gauza anitz ikusten ahal ditu bisitariak. Batetik, Olentzeroren inguruko informazioa, «Olentzerori galdetu» atala barne. Ume koskorrek esku-titza idazten ahal diote tripanhandiari, eta hark beti erantzun egiten du. Halaber, Gabonak ardatz duten denbora-pasak egiten ahal dira, eta Eguberri on bertze hizkuntzetan nola erraten den ikasteko aukera ere ematen du. Gabon kantak, antzerkiak, ipuinak eta bertze makina bat kontuk osatzen dute eguberrizaleek ezinbertzean bisitatu beharreko webgunea.

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



Etxetik atera zenerako paperezko panpina izugarri bat zeraman bizkarrean itsatsirik. Igogailuan, hirugarreneko atsoak egun on esan zionean, musika altuegi jartzen zuela oroitarazteaz gain —hori egunero egiten zuen—, irribarre egin zion. Horrek zertxobait kezkatu zuen, baina ez zitzaion burutik pasa panpinarena. Abenduaren 28a izanik ere. Mertxeren kioskoan, ordura arte inoiz leitu ez zuen periodikoaren azaleko izenburuak atentzioa eman zion, eta erosi egin zuen. Pagatzekoan Mertxeri esan zion: «Ikaragarria dun horrelako gauzak irakurtzea periodikoan... Sanzek dimisioa aurkeztea ere!». Eta Mertxek irribarre egin zion, albisteak

Inuxentea

inolako graziarik ez bazuen ere. Baina azalpenik galdegin gabe, presaz zebilela esanez alde egin zuen kioskotik; izan ere, hitzordu inportantea baitzuen zain, esan zion dendariari. «Pentsa, bart gauean telefonoz hots egin didate, diputaziotik, gaur bertan etxean ditudan pezeta guziak hartu eta eurotan aldatzeko epea amaitzen dela esanez. Bankura noa lasterka». Bizkarrean hiruzpalau paperezko panpina zeramatzen ordurako.

Eguerdian, autoa hartu eta Tuterako autobidean barneratu zen, koadrilarekin bazkaria zuen-eta Tora Bora izeneko aterpetxean. Lagunek esandakoaren arabera, Tora Bora Erriberan dago, Milagro eta Cadreita artean

nonbait. Eta han ibili zen gajoa, dozena bat paperezko panpina bizkarrean itsatsirik, herriz herri, Tora Borako aterpetxeaz galdezka. Jendeak irribarre egiten zion, kontuak inolako graziarik ez bazuen ere.

Iruñera itzultzerakoan, etsirik, abenduaren 28a Inuxenteen Eguna zela gogoratuta, broma bat egitea otu zitzaion. Oso erraza baita broma on bat egitea, pentsatu zuen. Hogei duroko txanpona hartu eta espalo'i gainean Loctite apur batekin itsatsi. Kafe bero bat eskutan hartuta, etxe atarian eseri zen, jendeak txanpona lurretik jasotzen saiatzerakoan hartzen zuen ezustekoari begira. Inuxenteen lepotik barrez.

Lizarra • Lau haizetara

Lizarrako historia eta artea ederki jasotzen duen liburu zaindua argitaratu berri du Udalak

Mendeetan zehar Lizarra izan dena eta suposatu duena biltzen duen liburuak karrikatu dute, hiriak gordetzen duena zabaltzearren.

«LIZARRAK DUEN GUZTIA LIBURU bakar batean jasotzea zaila bada ere argitarapen duin, eder eta interesagarria egitea lortu dugula erran daiteke». Hurrexe adierazi zuen Lizarrako alkate Maria Jose Bozalek *Estella-Lizarra* liburuaren aurkezpenan. 223 orrialdeetan barna, Lizarraren historia eta artearen erreferentzia guztiak aurkitzen dira.

Liburuak lau zatitan banatuta



Juan Ramon Corpas, Maria Jose Bozal eta Vicente Pastor editorea, liburuaren aurkezpenan. • KRISTINA BERASAIN

dago, eta atal bakoitza aditu batek idatzi du. Dena Gustavo Maeztu zuzendari Camino Paredesen zuzendaritzapean. Aurreneko atala Juan Ramon Corpasek idatzi du. Egun Principe de Viana erakundeko zuzendari den li-

zarratar honek *La ciudad, las ciudades* (Hiria, hiriak) kapitulua idatzi du sarrera moduan. «Hauxe da betidanik idaztea amestu dudana liburuak. Bakarbakarrik egitea nuen amets baina nire taldekideen lana mires-

garria da», adierazi zuen Corpasek. Ildo horretan, beharrezkotzat jo zuen liburuak. «Egun jende anitz webguneak egiten pentsatzen ari bada ere, eskertzeko moduko gauza da liburu bat egitea», gaineratu zuen.

Bigarren atala, *Historia de una ciudad* (Hiri baten historia), Fermín Miranda NUPEko irakasleak idatzi du. Bertan, historiaurrean hasi eta mendeetan barna ibilbide atsegina egiten du historialariak. Hirugarren atalak, berriz, artea du ardatz *Paisaje monumental* (Monumentu paisajea) izenburupean; Camino Paredes eta Gregorio Diaz senar-emazteak elkarlanean aritu dira harri zaharrek gordetzen dituzten esanahi guztiak helarazteko. Angel de Miguel idazleak, aurretik Baroja, Galdos eta Valle-Inclán idazleek egin zuten moduan, hiriak sortarazten duen bide literarioari heldu dio poesia lirainari sortuz.

Orotara liburuaren 1.500 ale egin dira eta 8.000 pezetaren truke eskuratzen ahal da liburudendetan. Edukia berbera bada ere, liburuaren bi eredu daude: ofiziala -Udalak oparitutako duena- eta normala, hots, edozein pertsonak eskuratzen ahal duena. Liburuak gaztelaniaz dago idatzita.

→ Kristina Berasain

Nafarroa •

Diru laguntza bueltan

Nafarkaria heldu den urteko subentzioa lortzeko moduan izanen dela erran du Sanzek

EUSKARA HEDABIDEETAN sustatzeko heldu den urteko diru laguntzen deialdian sartzetik izanen du NAFARKARIAK. Horixe agindu zion asteazkenean Nafarroako lehendakari Miguel Sanzek Europako Hiz-

kuntza Gutxituen Bulegoko lehendakari Bojan Brezigarri.

Gogoratuko denez, Brezigar abenduaren 14an etorri zen Iruñera. Gobernuak eta Parlamentuko lehendakariekin bilera egiteko eskatu zuen, baina Jose

Luis Castejonekin izan zen bakarrik; Miguel Sanzek ez zuen Brezigar hartu. Horren harira, Nuria Iturriagaitia eledunak abenduaren 17an erran zuen Gobernuarendako Brezigarren bisita ez zela «interesgarria».

Brezigarrek berak NAFARKARIA jakinarazi dionez, «atsekabetuta» itzuli zen Europako bere bulegora. Hala ere, Sanzek abenduaren 19an egin adierazpenak entzun eta gero -lehendakariak erran zuen euskara «asko» maite duela-, berriz saiatzea erabaki zuen. Nafarroako Gobernura deitu eta hitzordua egin zuen Sanzekin iragan asteazkenean.

Aldarte berria

Sanz eta Brezigar Nafarroako jauregiko harrera gelan egin zu-

ten bilera, goizeko hamarretan hasita. Brezigarrek erran zion «euskaren inguruko erabakiez hausnarketa egin beharko lukeela Gobernuak». Sanzek, bere aldetik, berretsi zuen bera ez dela «euskaren genozida» eta euskara «asko» maite duela. Are gehiago, heldu den urtean «edozein nafar irain dezakeen hizkuntzaren inguruko erabakirik» hartuko ez duela adierazi zion. Ez zuen gehiago zehaztu nahi izan, baina bileraren bukareraren zain zegoen kazetari bakarraren galdera zuzenari erantzunez, Sanzek Brezigarren aitzinean erran zuen NAFARKARIA gehigarria heldu den urteko diru laguntzen deialdian sartzetik izanen duela. Horretarako, egoitza soziala Nafarroan izan beharko du eta «Nafarroaren berezitasuna» errespetatu beharko du.

EUSKALDUNON EGUNKARIAKO kontseilari ordezkari Iñaki Uriak iragarri duenez, NAFARKARIAK egin ditu egin beharrekoak hurrengo deialdian sartzeko.

→ Alberto Barbarian



Bojan Brezigar eta Miguel Sanz Nafarroako jauregian. • JOXE CALLEJA



Xabier Larraburu

Dirua

Munduan sekulan egin den billete politena Frantziaren egin da. Dirua da, hortaz ez dago dudarik, hori egia da, gauza zikina da beraz, baina, aukeran, billeteak ederrena hori izan behar du derrigorrez. Saint-Exupéry egindako marrazkiak ateratzen dira eta baita berak gidatzen zuen abioia. Marrazkiak Printze Txikia liburuarenak dira: elefantea jan duen suge erraldoia eta printzea bera. Poesia hutsa. Adiskide frantziarrari horrela esan nion behin. Munduan sekulan egin den billete politena Frantziaren egin dela. Eta berak, oso modu jipian, billete guztiak arrot itxusiak direla esan zidan, dirua direla, berdin zitziola sugeak agertzen ote ziren edo ez. Nire aldetik poesia, literatura eta marrazkitxoak biltzen zituen billetearen alde egin nuen berriro eta batbatean poltsikoan nituenak ateratzea otu zitzaidan, alde nabarmentzeko edo. Espainiako (noski) mila pezetakoak ziren. Francisco Pizarro eta Hernán Cortes agertzen ziren. Biak kristoren genozidak. Billete hauek nazionalismo kutreenaren ispilu zirela esan nion. Alemaniako markoetan Hitler bat jartzea bezala zela (lurreko zabalak konkistatu zituen alemaniar bat izateagatik). Historizismoa eta nazionalismoa ekiditea, behintzat, gauza polita zela esan nion, aurrerapen txiki bat, al daketa txiki bat behintzat. Abendu honetan gauza guzti hauetaz oroitua naiz euroa dela eta. Euroarekin, behintzat, Pizarro eta Cortes agur esanen diegu. Erregeak, aldiz, hor segituko du Nazionalismo eta Historizismo kutreenaren jabegoa norrena den adierazten. Lan handia egin beharko dugu, oraindik ere, erregeen aurpegi horiek marrazkitxo poetikoekin ordezkatzeko. Eta lana egin beharko dute euro horien aurpegietan euskalerriko zer edo zer, inoiz, ikusi nahi dutenek. Niri, behintzat, liburu batean oinarritutako zer edo zer gustatuko litzaidake ikustea. Baina inolaz ere ez genozida euskaldun baten aurpegia (eta berdin zait zenbateraino izan zen abertzale sufrituak). •

Betaurrekoak aldrebes jarrita

Posta bidezko ikastaroa. Urte berrian Latinoamerikako herriren batean milaka heriotza eraginen dituen natur-hondamendia izan da. Euskal gatazka ez da konponduko. Nafarroako Gobernuak euskararen aurkako dekreturen bat plazaratuko du. Osasuna ez da champion-leaguerako sailkatuko. **Rapelen** posta bidezko iragarpen ikastaro azkarra egiten ari naiz. Bigarren urratsean nago, eta iragarpenotan %80-%90ean asmatuko dut. Hori ziurtatzen du, bederen, igarle espainiar lentejueladunak berak sinatu berme-agiriak. Horretaz gain, idazkiak azaltzen du ikastaroa amaitutakoan ingurukoek miretsiko nautela, bai eta, nahi izatekotan, lanbide berria izanen dudala ere.



Santiago Cervera, Unzuko kirol saileko langileen klonak.



Mikel Laboa, gitarra jotzen ikasteko eredu.

gain, iruditu zitzaidan 23a izanda, jende guztia Eguberrietako erosketak egiten ariko zela. Eta hori guztia gutxi balitz bezala, hotz ikaragarria zen nagusi larunbat arratsaldean. Gauzak horrela, iruditu zitzaidan inor ez zela joanen manifestaldira, horixe izan zen neure golkorako egin nuen iragarpena: ez da inor joanen.

Ez dut uste manifestaldien bitartez ezer lortzen denik. Eta horregatik ez naiz manifestaldietara joaten. Baina nazkatuta nago Unzuko kirol alorreko lankideekin. Itxuraz **Santiago Cerveraren** klonak dirudite, bai eta ideologiaz ere. Besteak beste, edozein aitzakia erabilita ikaragarri gozaten dute Nafarroan euskaldunak ez dagoela esanez. Lanean horrelakorik entzun nahi ez nuenez, manifestaldira joan nintzen. Zer to-

Gitarrekin, porrot. Nerabezarroan, gitarra jotzen ikasteko posta bidezko ikastaroa hasi nuen. Ez zen izan, irakurle aluak imajinatu bezala, ikastaroaren sona handiko iragarkiak ziurtatzen zuen nesketan aritzeko erraztasuna neureganatu nahi nuelako, baizik eta politikoki zein sozialki Pitusa gaseosa baino eferbeszenteagoak ziren garai haietan **Mikel Laboak, Imanol Larzabalek, Xabier Letek** bezala, txorien, hegoen, kaiolen inguruko metafora guztiz iraultzaileak abestu nahi nituelako, betiere, eusko gudarien moduan, Euzkadi askatzeko —memoria huts egiten ez badit,

garai haietan hala idazten nuen—. Alta, akorde bakar bat ere jotzerik ez nuen lortu, ikastaroko liburuxkako marrazkietan hatz eta traste bakoitzari zegokion zenbakiarekin behin eta berriz nahastuta.

Premia larria. Porrot haren ondotik, posta bidezko ikastarorik sekula ez nuela berriz egiten hitzeman nion neure buruari. Alta, hitz hura atzera bueltan irentsi behar izan dut, igarle ikastaroa egin ahal izateko. Horretara bultzatu nauena ez da izan inguruko miresmena neureganatzea; ez eta lanbide berria lortzea ere — Unzuko etxeko tresna elektriko saltzailea

izatea gogorra da, batez ere egunotan, baina beste lanbide bat hartzekotan, ez dut hartuko soinean lentejueladun kamisoi eramatera eta betaurrekoak aldrebes jartzera behartzen duenik—. Iragarpen ikastaroari ekin diot, berriki iragarpen batean huts ikaragarria egiteak sekulako sufrimendua eragin zidalako.

Akats larria. Joan den larunbatean, abenduaren 23arekin, Oinarriak-ek eta Hautetsiek euskararen aldeko manifestaldira deitu zuten. Ia kasualitatez jakin nuen deialdiaren berri, ez bainuen iragarkirik ikusi edo eta entzun. Horretaz

patuko manifestaldian, eta dozenaka, ehunka, milaka, milioika lagun. Etxean geratzen ahal nintzen lasai aski, baina ez, joan nintzen, ibilbide luzean nekatu nintzen, aspaldiko ezagunekin egin solasaldi militanteekin aspertu nintzen, eta batez ere izoztu nintzen, katarratu nintzen. Eta hartara, sukartuta, buruko minez pairatu behar izan nituen berez aski jasangaitzak diren Gabon gau zein Eguberri eguneko otorduak. Horregatik, azken boladan gailentzen zaidan ezkortasunak beste sufrikariorik eragin ez diezadan, ekin diot Rappelen posta bidezko ikastaro azkarrari.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Bibotea galdu gabe

«Baduzu zernahi, —erran du saltzaileak—: *Pantxo Villa, india, deabrua, arrautza frijitu, kondoia, fraidea, pirata, eta aurtengoa, noski, Bin Laden. Beno, Bin Laden edo konpartzako erraldoia...*». Mozorro denda bateko langilea da, neke antzean, galtzak bete lan ari baita duela hiru astetik honat. Sanferminetan edari dendak bezala irekitzen dira urte hondarrerako mozorro dendak Iruñean, mozorro jantziak saltzeko edo alokatzeko. Konparazio batera, bi mila pezetan Fumantxuren arropak eraman ditzakezu, bibotea eta guzti. Hori bai, gaez bibotea galduz gero, beste 500 pezeta utzi beharko dituzu urte berrian, jantzia itzultzerakoan. Eskertzekoa da saltzailearen gomendioa: «*Bibotea ez itsatsi lokiterek, baina ez galdu*». Izan ere, urte zahar bihamuneko parteetan ez dira gu-

txi aurpegia urratua dutenak, bizarrari itsasgarriekin eusteagatik.

Horrek erran nahi du jendeak oraindik ez duela eskarmenturik hartu. Azken finean, burua mozorrotzearena kontu berria da hirian, baina iduri du bitziza osoan halaxe izan dela, eta hori 18 urteko gazteak bertzerik ez dezake erran. Beraz, duela gutxi arte, ez du bereizitasunik izan Iruñeko ospakizunak, ez bada garai batean egiten ziren gauerdiko meza jendetsuak, arrunt jendetsuak, XIX. mendetik XX.-ra pasatzerakoan gertatu zen moduan, jendea katedralean komekatzan egon baitzen goizeko laurak arte. Bekatuak aitortzeko ere ilara luze luzeak egin ziren. Izan ere, zer gerta ere, hobe zen mende berrian garbirik sartzea, iruindarrek sinistu egin baitzuten profeziek



Ohitura berria da Urte zahar gauean mozorrotzea.


iragartzen zutena, munduak ez zuela luzaz iraunen, alegia.

Baina, bistan denez, iraun du, eta tabernariak ari dira euroaren gaineko ikastaro trinkoa egiten. Estafeta aldean, gainera, edarien prezioak eurotan idatziak dituzte, oraindik ikusgai ez dagoen arbel batean. Garagardoa 1,25 euro dira; patxaran ko-

pa 1,60; eta komandantea (Habana 7 + koka kola) 3,10. Barra libreko kotiloak ere izanen dira hiriko hotel izartsuetan, soineko ilun eta kortejantzi beltzarekin joateko, noski. Pijo, gomina, distira, bizarririk ez, bibote txukunak, zernahi jan eta edan, dena 75 eurotan (12 mila pezetatik gora). Hori bai, goizeko bortzak arte. Logela eskatuz gero, 10 euro gehiago dira (goizeko bortzak arte ere?). Prezioaren barnean, gainera, matasuegraren poltsa berezia dago, belusezko maskara eta guzti. Ondoren, sekulan bete ez den hitzordua, Arga izoztuan (aurten bai benetan) murgiltzea. Madalenako zubiaren parean, goizeko zortzietan. Sartu baino lehen kendu bibotea, 500 pezeta baitira.

Jaione Olazabal

NAFARROAKO KANTUZALEEN ELKARTEKO IDAZKARIA



● OSKAR MONTERO

Hilaren 16an bukatu zen aurtengo Euskal Kantu Txapelketa, Nafarroan, Doneztebeko Bordatxon egindako finalarekin. Haurren artean antolatzen den lehiaketaren osagarri da, eta kanturako zaletasuna dutenentzat jendaurrean abesteko aukera polita.

«Helduei gehiago kostatzen zaie txapelketan parte hartzea»

EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEAK antolatzen du txapelketa, urtero. Elkarte horretako idazkari Jaione Olazabalek aurtengo partaideen kalitatea nabarmendu du, eta txapelketaren gorabeheren berri eman digu.

■ **Hilaren 16an egin zenuen finala, Donezteben; zer moduz joan da aurtengo txapelketa?**

Pozik gaude; kalitatea ona izan da, epaimahaiak esan duenez. Hasieran uste genuen jende gutxi emanen zuela izena parte hartzeko, baina azken egunetan animatu zen jendea, eta bi kanporaketa antolatu ahal izan ditugu, lehena Aurizberrin eta bigarrena Altsasun. Iaz, dena den, partaide gehiago izan ziren.

■ **Partaidetzan alderik izaten da lekuaren arabera?**

Nafarroa osoko partaideak izaten dira, baina egia da azken urteotan Leitza aldetik abeslari asko atera dela txapelketan aritzeko. Beti dago jendea. Lehen, Sakanan ere partaide asko izaten zen, baina azken boladan sumatu dugu beheiti egin duela, eta horregatik jarri dugu han kanporaketa bat aurten. Baztan aldetik ere urtero dugu partaideren bat, baina aurten bakarra ere ez da animatu. Hori da nabaritu dugun aldaketarik handiena, eta ez dakigu zergatik izan den. Eta, bestetik, egia da helduekin zailagoa dela haurrekin baino.

■ **Gehiago kostatzen zaie oholtza gainera ateratzea?**

Bai, hala da. Haurren artean iaz 400 bat partaide izan genituen, eta lau kanporaketa; leku guztietako haurrek parte hartzen dute. Helduei, ordea, gehiago kostatzen zaie parte hartzera ausartzea.

■ **Hala ere, orain arte bi urtetik behin egin ondoren, iaiztik urtero egiten duzue helduen txapelketa ere.**

Bai. Konturatu ginen bi urtetik behin eginda jendeak ez zuela txapelketaren berri zehatzik, eta horregatik erabaki genuen urtero egitea, jendeak jakin dezan urtero bolada honetan txapelketa izanen dela. Eta emaitza ona izaten ari da: azken bi urteotan

duela hiru baino jende gehiagok parte hartu du. Agian, denbora gehiago besterik ez dugu behar partaide gehiago lortzeko.

■ **Duela hamabost urte hasi zineten txapelketarekin; zer behar da hainbeste denbora irauteko?**

Garrantzitsuena da jendea ezagutzera, zonalde bakoitzean txapelketaren berri eman eta abeslariak animatuko dituen norbait izatea. Leitza, adibidez, hango apezak lan handia egiten du jendea mugitzeko, eta Baztan-Bidasoa aldean, Axun Iturria dugu laguntzeko prest. Guk bakarrik ezingo genuke leku guztietara ailegatu.

■ **Urte horietan guztietan, izan da aldaketarik txapelketan?**

Aldaketa handia. Azken urteotan, adibidez, nabari-

tu dugu jendeak besteen kantuak abestu ordez nahiago duela txapelketarako propio bere abestiak sortzea. Hori dela eta, aurten sormena saritu nahi izan dugu. Hori izan da aldaketarik handiena.

■ **Txapelketaz gain, iaizko irabazleekin kontzertu sorta antolatu duzue aurten ere; zer moduzko esperientzia izan da?**

Oso ona. Azken emanaldiak Goizuetan eta Beran izanen dira. Hamabost kontzertu antolatu ditugu, uste dugulako elkarteak txapelketan parte hartzen duten abeslarietara segitzeko aukera eman behar diela. Hainbat talde sortu dira dagoeneko, eta hori oso aberasgarria da.

→ Edurne Elizondo

«Azken urteotan nabaritu dugu jendeak besteen kantuak abestu ordez nahiago duela txapelketarako propio bere abestiak sortzea. Hori dela eta, aurten sormena saritu dugu»



Gabari taldea. ● OSKAR MONTERO



Begoña eta Nerea. ● MIKELSAIZ

IX. Euskal Kantu Txapelketako irabazleak	
TALDEKA:	SORMENA
1. Gabari taldea (Lekunberri): 'Ai ama!'	SARI BEREZIA: Izaskun Samaniego eta Marta Ibañez.
2. Gurea taldea (Tafalla): 'Non daude'.	
BIKOTEKA:	A CAPELLA
1. Begoña Almirantearena eta Nerea Biurrarena (Aurizberrin): 'Nere maite, maite polita'.	SARI BEREZIA: Gabari taldea.
2. Izaskun Samaniego eta Marta Ibañez (Tafalla): 'Muxuka'.	AHOTZ TREBETASUNA
	SARI BEREZIA: Gurea taldea.
BAKARKA:	PUBLIKOAREN
1. Itsasne Mundiñano (Olazti): 'Amodio ezitia'.	SARI BEREZIA: Maddi Olano eta Birjinia Mariezkurrena (Leitza): 'Bizitzaren amildegia'.
2. Xuxuna Juanes (Oderitz): 'Euskal selekzioaren alde'.	



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Egun sargori eta goxo hauetan...

Egun sargori eta goxo hauetan, berriak eta albisteak ohiko normaltasunean ailegatu zaizkigu. Nafar guzietan milioiak eta milioiak ebatsi zizkien presidentek bi urte pasa ditu kartzelan (?) eta dagoeneko etxean lo egin eta asteburuak pasatzeko aukera du. Bertze presidente bat auzipetze bidean dago. Bien bitartean, dagoeneko izen hori daraman erakunderik ez dagoen arren, Garzon super-epaileak Amnistiaren Aldeko Batzordeak legez kanpokoztat jo ditu. Milaka eta milaka nafar bildu ditu Oinarriak Plataformak Iruñean euskararen alde deitutako manifestazioak. Aitzineko astean, gaur egungo Nafarroako presidentek normaltzat jo du euskara bezainbertze, edo gehiago, baloratzea alemana, greziera, suomiera... finean Europako bertze hizkuntza guziaz. Nafar gehienak erabaki horren alde daudela dio. Zergatik ez du orduan italiarra erabiltzen mendialdeko jubilatuekin bazkaltzera biltzen denean? Baliabideei dagokienez, Hegoamerikako herrialderik aberatsena den Argentina lur jota dabil, krisian, jendea dendak ebasten, Gobernuak eta presidentek dimisioa aurkeztu dute... Hemengo komunikabideek gaiaren jarraipen zabala eta estua egin dute, ekonomia eta politika aferetan adituak diren Osasunako pibe-futbolariak elkarrizketatuz. Elkartzun mezu argia eman dute: baloia borobila da, hameka hamekaren kontra jokatzin dugu eta ez da arerio ttikirik.

Nafarroara egindako bisitaldiaren ondoren, Felipe Printzeak bere andregai uztea erabaki du. Zurrumurruek diotenez, presidentek luzatutako maitasun hitz goxoek liluratuta utzi zuten. Hortik aitzinerakoak...

Urteko azken Nafar Kronika da hau, beraz Urteberri on. Nafarroako Gobernuaren diru laguntza oparoen ondorioz, oraindik ez daki-gu heldu den urtean, euroaren lehendabiziko urtean, NAFARKARIARIK izanen den. NAFARKARIARIK 0 pezeta; *Diario de Navarra*-n, euskaraz (?) idatzitakoengatik, bortz milioitik goiti.

Al Gogoratzen ez bazineten, Inuxente Eguna da gaur: kronika honetan inoxentada zer den eta zer ez den asmatzen duenari, 2,5 euroko diru laguntza opari Diputazioan.

gure aukerak

URTEZAHARRA

- **Bera:** Astelehenean 80 gaztetik goiti koplakantari ibiliko dira herriko karraketan barna, 18:00etatik aurrera.
- **Mutiloabeiti:** Astearteko 01:30etik aurrera, Gabon zaharreko jaia egingen dute, kiroldegian, Rubi Berriak orkestraren laguntzaz.

ERREGE MAGOAK

- **Antsoain:** Errege magoen desfilea urtarrilaren 5eko 18:00etan abiatuko da, udaletxetik. Ongietorria kiroldegian egingen diete, 19:30ean.
- **Atarrabia:** Desfilea Maitasun Errukitsuaren egoitzatik aterako da, 18:00etan, Eliza-Parrokiarako bidean.
- **Burlata:** Errege magoak kaputxinoetatik Juan Bautista parrokiaraino joanen dira, 19:00etan abiatuta.
- **Mutiloagoiti:** Errege magoak 19:00etan aterako dira, Mutiloagoitiko Amma zentrotik. Gero Mutiloabeitira joanen dira.
- **Zizur Nagusia:** Errege magoen kabalgata 19:00etan abiatuko da, kiroldegitik, Doniantzu Itxaropenaren Andra Mari parrokiarako bidean.

MUSIKA

- **Aitzoain:** Txutxin Ibañez y Los Chihuahua, gaur, 23:00etan, Artaia aretoan.
- **Lakuntza:** Reventon taldea, gaur, 23:30ean, Sorgina tabernan.
- **Etxarri-Aranatz:** Juan Mari Beltrane *Euskal Herriko musika tresnak* kontzertu didaktikoa emanen du, bihar, arratsaldean, Kultur Etxean.

ANTZERKIA

- **Antsoain:** Urtarrilaren 3an, Panta Rhei taldeak *Saraba* antzerki eta txotxongilo lana eskainiko du, 17:00etan, kiroldegian.

- **Atarrabia:** Urtarrilaren 3an, TEN Pinpilinpauza taldeak *Los ratones del organillo* lana euskaraz eskainiko du, 17:30ean, Atarrabia pilotalekuan.
- **Zizur Nagusia:** Urtarrilaren 3an, Sambhu Teatro taldeak *Errekreoa* lana antzetzuko du, 18:00etan, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Urtarrilaren 4an, *Horra Mari!* Eguberrietako ipuina taularatuko dute, 12:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Iruñea:** Urtarrilaren 5ean, *Itsaminez* lana eskainiko du Txotxongilo taldeak, 12:00etan, Gaiarre antzokian.

BERTSOLARIAK

- **Bera:** Andoni Egaña, Sustrai

Colina, Amaia Agirre eta Iñigo Olaetxea bertsolariak urteari erreparoa emanen diote, bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

DANTZARIAK

- **Bera:** Gure Txokoa dantza taldeak herriko plaza batean giroturiko istorioa dantzatuko du igandean, 19:00etan, Herriko Etxeko plazan.

ZINEMA

- **Barañain:** *Banpiro txikia* filma, gaur, 12:00etan, Kultur Etxean.
- **Atarrabia:** *Banpiro txikia* filma, bihar, 17:30ean, Atarrabia pilotalekuan.

BESTELAKOAK


- **Ororbia-Etxauri-Orkoi:** Ororbian haurrentzako jolas-lantegiak antolatuta dituzte gaurko, urtarrilaren 2rako eta 4rako, 17:00etatik 19:00etara. Etxaurin urtarrilaren 3an egingen dituzte, 11:00etatik 14:00etara. Eta Orkoienean, astelehenean, eta urtarrilaren 2an eta 7an, 11:00etatik 13:00etara, eskola zaharretan.

oharra

Eguberri bestak

Eguberri bestak direla eta, heldu den ostiralean ez da NAFARKARIARIK izanen. 2002ko lehen NAFARKARIA urtarrilaren 11n plazaratuko dugu. Zorionak eta urte berri on!

● MIKEL SAIZ



Ilbetea

Urte zahar, ilargi zahar. Igandean, urtearen azkenaurreko egunean, ilbetea izanen dugu. Ilargia, Lurraren satelite natural bakarra, Lurrarekin bateratsu sortu zen, eta hasiera-hasieratik, gure ondoan izan da, fidel. Ilargiak ez du berezko argirik, Eguzkitiko argia islatu besterik ez baitu egiten. Lurraren inguruan biraka ari denez, Eguzkiak ilargiaren hemisferio bat argizatzen du beti, eta bestean gaua da. Lurretik ikusita, ilargia ez da beti berdina ikusten, eta zati argizatuaren itxura aldatu egiten da. Lurra Eguzkiaren eta ilargiaren artean dagoelarik, Lurretik ilargiaren hemisferio argizatu oso-osorik ikusten dugu, igandean gertatuko den gisara. Gure hiri modernoetan farolen argiak eta ilargitiko datorkiguna lehian dira aspaldi, argi gehien nork emanen. Dudarik ez dago nor den irabazle.

Ilargi amandrea, zeruan zer berri?